

Año LII. urtea

129 - 2020

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Euskara eremu zientifikoan

Giza eta gizarte zientziei buruzko aldizkarietako
laburpenen azterketa
kuantitatiboa (2010-2019)

Mari Mar BOILLOS PEREIRA, Garbiñe BEREZIARTUA ETXEBERRIA

Euskara eremu zientifikoan

Giza eta gizarte zientziei buruzko aldizkarietako
laburpenen azterketa kuantitatiboa (2010-2019)

El euskera en el ámbito científico: estudio cuantitativo de los resúmenes de las revistas de humanidades y ciencias sociales (2010-2019)

Basque in the scientific field: quantitative study of the abstract of the Humanities and Social Sciences journals (2010-2019)

Mari Mar BOILLOS PEREIRA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
mariadelmar.boillos@ehu.eus

Garbiñe BEREZIARTUA ETXEBERRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
garbine.bereziartua@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.35462/FLV129.5>

Jasotze data: 2020/04/01. Behin-behineko onartze data: 2020/04/11. Behin betiko onartze data: 2020/05/20.

LABURPENA

80ko hamarkadan euskara normalizatzeko martxan jarri ziren ekimenen ondorioz, euskara bere tokia hartzen joan da eremu akademikoan eta, horrekin lotuta, argitalpen zientifikoetan. Lan honen helburua euskaraz (ere) ekoizten duten aldizkari zientifikoetan euskarak zer presentzia daukan jakitea da. Azterketa corpus batera mugatu da: 2010-2019. urteen artean EAEn eta NFKn argitaratu diren giza nahiz gizarte zientzietako 31 aldizkari. Aldizkari horietan euskarak izan duen presentzia neurtu da, bai artikuluetan eta bai artikuluen *abstract*etan. Emaitzek erakusten dutenez, euskararen presentzia oraindik eskasa da eta ez dago euskararen aldeko apusturik inpaktu handieneko aldizkarietan.

Gako hitzak: euskara akademikoa; aldizkari zientifikoa; laburpen zientifikoa; idazketa akademikoa; giza eta gizarte zientziak.

RESUMEN

A raíz de las acciones que se tomaron para poner en marcha la normalización del euskera en la década de los 80, el euskera ha ido haciéndose un hueco en el ámbito académico y, con ello, en las publicaciones científicas. El objetivo de este trabajo es conocer qué presencia tiene el euskera en las revistas científicas en las que se publica (también) en euskera. Dicho estudio se ha acotado a un corpus: 31 revistas de ciencias sociales y humanidades que se publican en la Comunidad Autónoma Vasca y la Comunidad Foral de Navarra entre los años 2010 y 2019. Se ha medido la presencia del euskera en los artículos de dichas revistas, así como en los *abstracts* de dichos artículos. Los resultados muestran que la presencia del euskera es aún escasa y que no hay una apuesta en favor del euskera en las revistas de alto impacto.

Palabras clave: euskera académico; revista científica; resumen científico; escritura académica; ciencias sociales y humanidades.

ABSTRACT

As a result of the actions established for the normalization of the Basque language in the 1980s, Basque has carved a niche in the academic sphere and, thus, in scientific publications. The purpose of this paper is to find out the presence of the Basque language in the scientific journals in which it is published (also) in Basque. This study has been limited to a corpus: 31 Social Sciences and Humanities journals published in the Basque Autonomous Community and Foral Community of Navarre between 2010 and 2019. The presence of the Basque language has been measured in the papers of these journals, as well as in the abstracts of those papers. The results show that the presence of Basque is still scarce and that there is no firm commitment to Basque in high impact journals.

Keywords: academic Basque; scientific journal; abstract; academic writing; Social Sciences and Humanities.

1. SARRERA. 2. EUSKARA, HIZKUNTZA AKADEMIKOA. 2.1. Euskara EAEko eta NFKko unibertsitateetan. 2.2. Euskarazko ekoizpen akademikoa. 2.3. Hizkuntza akademikoa eta euskara. 3. METODOLOGIA. 3.1. Helburua eta ikerketa-galderak. 3.2. Corpusa. 3.3. Datuak aztertzeo prozedura. 4. EMAITZAK. 5. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK. 7. ERANSKINAK.

1. SARRERA

Euskarak eremu akademikoan ibilbide laburra izan duela esan daiteke. Euskara batua sortu zenetik, hizkuntza estandarizazio-prozesu batean murgilduta egon da. Horren kariatara, euskara presentzia irabazten joan da arlo akademikoan ere, unibertsitateetan euskara erabiltzen eta euskal unibertsitateak sortzen joan diren heinean. 80ko hamarkadan sortu ziren Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP); ordurako martxan zeuden Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UHUN/UNED), eta beranduxeago sortuko zen Mondragon Unibertsitatea. Euskararen normalizazio-planei eta sortutako unibertsitatei esker, euskara bere tokia egiten hasi zen eremu akademikoan.

Azken urteotan, euskararen presentzia eremu akademikoan hedatu egin da. Hori erakusten dute, besteak beste, euskarazko gradu akademikoen eskaintzaren hazkundea eta ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleen kopuruek. Gaur egun, gradu amaierako lanak, master amaierako lanak eta bestelako dokumentu zientifikoak maiz ekoizten dira euskaraz. Aitzitik, ez dakigu zabalkunde hori argitalpen zientifikoetan ere paraleloki ematen ari den.

Testuinguru hori kontuan izanda, lan honetan fokua jarri da euskarak aldizkari zientifikoetako argitalpenetan izan duen presentzian. Zehazki, 2010-2019. urteen artean giza eta gizarte zientzietako aldizkari zientifikoetan argitaratutako

lanak¹ zein hizkuntzatan idatzi diren eta lan horien *abstractetan*² euskarak zer toki izan duen aztertuko da.

Beraz, lan hau hiru atal nagustitan banatuta aurkeztuko da. Lehenik eta behin, atal teorikoan, euskara eremu akademikoan egiten ari den bideari buruzko azalpenak emango dira. Ondoren, metodologiaren atalean, ikerketa-galderak aurkeztuko dira, corpusa sortzeko erabili diren prozedurak xehatuko dira eta azterketa egiteko prozedurari buruzko argibideak emango dira. Azkenik, lortutako emaitzak aintzat hartuta, 2010-2019. urteen artean aldizkari zientifikoetan euskarak izan duen presentziari buruzko datuak erakusiko dira, hainbat aldagai ardatz hartuta.

2. EUSKARA, HIZKUNTZA AKADEMIKOA

Euskara hizkuntza akademiko gisa egiten ari den bideari buruz arituko gara lan honen atal teorikoan. Lehenik eta behin, euskarak Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera, EAE) eta Nafarroako Foru Komunitateko (hemendik aurrera, NFK) unibertsitateetan zein toki daukan azaltzen ahaleginduko gara. Jarraian, euskarazko ekoizpen akademikoarekikoak ikusiko ditugu. Eta, azkenik, euskara eremu akademikorako hizkuntza bilakatzeko bidean eman diren zenbait urratsen berri izango dugu.

2.1. Euskara EAEko eta NFKko unibertsitateetan

80ko hamarkada inflexio-puntua izan zen euskararen egoera akademikoan. Hizkuntza-normalizazioa eta EAEren eta NFKren egoera soziopolitikoak funtsezkoak izan ziren hezkuntza-maila guztietan, besteak beste, unibertsitate-mailan euskarak izan duen presentzia areagotzeko. Testuinguru horretan sortu zen Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legea eta honela dio bere 19. artikulua: «Irakasleen prestakuntzarako unibertsitate-eskolek beren ikasketa-planak egokituko dituzte, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten, norik bere espezialitatearen eskakizunen arabera».

Horri, 1981. urtean Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrera gehitu behar zaio. Aurretik Bilboko Unibertsitatea izan zena, EAEko lehen unibertsitate publiko bihurtu zen (Kintana, 1994). NFKn, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) ere sortu zen hamarkada honetan, baina urte batzuk geroago, 1987an. Horiekin batera, beste hiru unibertsitate pribatu daude gaur egun EAEn eta NFKn: Deustuko Unibertsitatea (1886an sortua), Nafarroako Unibertsitatea (1952an sortua) eta Mondragon Unibertsitatea (1997an sortua). Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala (UHUN/UNED) bilakatuko zena ere martxan dago 1972. urteaz geroztik.

1 «Artikulu» hitza erabiliko dugu aldizkari zientifikoetan argitaratu diren lanei erreferentzia egiteko (diziplina askotariko formak eduki ditzaketan arren).

2 Lan honetan *abstract* eta laburpena/laburpen zientifikoak sinonimotzat hartuko dira.

Zentro horiek euskara esparru akademikoan eta zientifikoan txertatzeko hainbat pauso eman dituzte. Esate baterako, Nafarroako Unibertsitateko Antonio Fontanek «Hizkuntza eta Kultura Katedra» sortu zuen 1963an. Katedraren lema nagusia euskara eta euskal kultura unibertsitate-eremuan hedatzea zen. Euskal irakaskuntzak eta ikerkuntzak bultzada nabarmena jaso zuten 90eko hamarkadatik aurrera unibertsitate horretan, Euskal Ikasketen Diploma sortzeari esker (Bastero de Eleizalde, 2004).

60ko hamarkadan Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegia ere sortu zen, 1978/1979 ikasturtean «Euskal Irakaslegoa» deritzan institutu bihurtu zena. Ikasturte horretatik abiatuta, unibertsitateak bere inguruan euskararen presentzia handitzeagatik duen kezka azaldu zuen. Urte horretatik aurrera, ikasleei euskaraz ikasteko aukera ematen hasi ziren (Aranzadi, 1995), eta esparru akademikoan euskararen normalizazioa indartu eta euskara hizkuntza zientifiko gisa sendotu nahi izan zen. Planteamentu horiek 1999/2000 ikasturtetik indarrean egon den «Deustuko Unibertsitateko Euskararen Normalizazio Plana» dokumentuan jaso ziren (Pagola, 2004).


Bestalde, UPV/EHuren lehenengo une gogoangarri bat Euskarako Kabinete Teknikoaren sorrera izan zen, Euskarako Errektoreordetzaren aurreko pausua izan zena. Gaur egun testuinguru akademikoan indarrean dauden euskara zabaltzeko proiektu eta ekimen ugari sortu dira horri esker. Horren erakusgarri dira euskararen normalizazio-planak, esate baterako, egun indarrean dagoen «Euskararen III. Plan Gidaria». Horien helburua izan da, 1990etik, irakasleen euskara maila bermatzea, unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza-prestakuntza sustatzea eta unibertsitatearen barruan akademikoak ez diren guneetan euskararen presentzia bultzatzea, besteak beste kafetegietan edo liburu-dendetan (Irazusta, 2010). Horrez gain, «Terminologia Sareak Ehunduz» programak ere arreta berezia merezi du; komunikazio-egoera akademikoetan irakasle/ikertzaileek erabiltzen duten diskurtsoaren ezaugarriak ezagutzeko tresna bat da. Oinarria Garaterm proiektua izan zen (Zabala et al., 2008) ikuspegi diakroniko eta dinamiko batetik hizkuntz normalizazioak sortutako arazo zehatzei erantzuna emateko sortu zena.

NUPen estatutuek (IV. atala, V. kapitulua) unibertsitateak euskarari ematen dizkion rola eta garrantzia jasotzen dute. Dokumentua osatzen duten zortzi artikuluek aipatzen dute «unibertsitateko kideek gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea, bai eta euskaraz ikasi eta irakastekoa ere» (NUP, 2020). Ondorioz, euskararen plan estrategikoez azpimarratzen dute beharrezkoa dela administrazioek bi hizkuntzetan eskumena izatea eta euskaraz irakasten diren graduen eskaintza urtez urte hazten joatea.

Mondragon Unibertsitatea da denetan gazteena. 1997an sortu zen, hainbat hezkuntza-kooperatiben eskutik. Euskararen normalizaziorako ekintzei dagokienez, aipatzekoa da 2006/2007 ikasturtean Euskara Batzordeak abian jarri zuen Euskara Plana, hizkuntza honen erabileran eta kalitatean eragiteko. Unibertsitate honetan, eleaniztasuna bultzatzen da ikasgeletan eta euskara unibertsitatearen komunikazio-hizkuntzat hartzen da.

Ekimen horiek guztiek eta unibertsitatearen aurreko hezkuntza-aldietan euskaraz ikasi duten ikasleen kopuruaren hazkundeak isla izan dute graduatan euskaraz

matrikulatutako ikasleen kopuruan. Horren erakusgarri da, adibidez, UPV/EHUn, 2002/03 ikasturteetik 2013/14 ikastertera, gradu batean euskaraz matrikulatu diren ikasle kopurua adierazten duen 1. irudia:



1. irudia. Sarrera berritzat euskaraz matrikulatutako ikasleen bilakaera UPV/EHUn (%).
Iturria: <http://www.ehu.eus/zenbakitan/eu/node/41.html>

Horrela, esan daiteke, orokorki, arlo akademikoan euskararen presentzia indartu dela. Gainera, beren planetan esandakoaren arabera, EAEko eta NFKko unibertsitate guztiek nahi dute etorkizuneko unibertsitatea eleaniztuna izatea eta euskara komunikatzeko tresna izatea. Horretarako, euskara akademikoaren garapenerako pausoak ematen ari dira eta behar berrietara egokitzeko ekimenak ere abian daude. Horren beste adibide batzuk lirateke unibertsitatean zein lehenagoko hezkuntza-aldietan euskaraz irakasteko sortutako materialak: UPV/EHUK argitaratutako liburuak³, artxibo digitala⁴ eta ikas-materialen sare-argitalpenak⁵; Deustuko Unibertsitateak argitaratutako liburuak⁶;

3 UPV/EHUK argitaratutako liburuak: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/liburuen-katalogoak>

4 UPV/EHUn artxibo digitala irakaskuntzarako eta ikerketarako: <https://addi.ehu.es/?locale=eu&top=>


5 UPV/EHUKo ikas-materialen sare argitalpenak: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/>

6 Deustuko unibertsitateak argitaratutako liburuak: <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/index.php/eu/liburuak-euskaraz>

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren argitalpenak⁷; Udako Euskal Unibertsitateak argitaratutako liburuak⁸ eta liburutegi digitala⁹; Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak¹⁰ edota Elhuyarrenak¹¹.

2.2. Euskarazko ekoizpen akademikoa

Unibertsitate-prestakuntzan euskararen presentzia normalizatzeak ondorio zuzena izan du, halaber, hizkuntza horretan testu zientifiko gehiago ekoiztean. Gaur egun, euskarazko argitalpen zientifikoak egiten dira aldizkari nahiz liburuetan eta, horrez gain, gradu amaierako lanak, master amaierako lanak edo doktore-tesiak euskaraz egiteko aukera eskaintzen da eta egiten dira. Esate baterako, hurrengo irudian (ikus 2. irudia), ikus daiteke garapena ezegonkorra izan den arren, euskaraz egiten diren tesien hazkunde nabarmena dagoela. Kontuan hartu behar da grafiko honetan Bordeleko Unibertsitatean eta Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateetan egindako lanen datuak ere sartu direla.



2. irudia. Euskaraz egindako tesien bilakaera (n).

Iturria: <https://www.euskadi.eus/introduccion-tesis-doctorales-euskera/web01-a3tesiak/es/>

7 Nafarroako Unibertsitate Publikoko argitalpenak:

<http://www.unavarra.es/euskara/argitalpenak?languageId=100001>


8 Udako Euskal Unibertsitateak argitaratutako liburuak: <http://www.ueu.eus/denda>

9 Udako Euskal Unibertsitatearen liburutegi digitala: <http://www.buruxkak.eus/>

10 Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak: <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenak/argitalpen-katalogoak/bi-16013/>

11 Elhuyarren argitalpenak: <https://www.elhuyar.eus/eu/site/argitalpenak>

Diziplinen araberako banaketari dagokionez (ikus 3. irudia), gizarte eta zuzenbide zientzietan nahiz arteak eta giza zientzietan euskaraz egiten diren tesiak, gainontzeko diziplinetan egiten direnak baino askoz ere ugariagoak dira.



3. irudia. Tesiak euskaraz diziplinaka (n eta %).

Iturria: <https://www.euskadi.eus/introduccion-tesis-doctorales-euskera/web01-a3tesiak/es/>

Hala ere, euskarazko mundu akademikoaz hitz egitean, beharrezkoa da hizkuntza horretako argitalpenekin zer gertatzen den jakitea. Ikertzaileak behartuta daude oso parametro zehatzak dituzten egiaztapen zientifikoak eskuratzera eta horrek eragin zuzena dauka esparru akademikoan argitaratu behar dituzten lanekin (artikuluak, liburuetako kapituluak, liburuak, erreseinak...). Egiaztapen zientifiko zorrotz horiek lortzeko ezinbestekoa da nazioartean prestijioa daukaten aldizkari nahiz argitaletxeetan argitaratzea, eta, horretarako, ezinbestean erdaretan (gaztelaniaz eta ingelesez, batez ere) idatzi beharra daukate. Aldizkari nahiz argitaletxe horiek eremu akademikoan baliola daukaten rankingetan hobeto kokatuta daude eta, ondorioz, ikertzaileei zientzia-aitorpen handiagoa lortzea ahalbidetzen die. Sistema horretatik kanpo dauden argitalpenek ia ez daukate pisurik egilearen ibilbide profesionalean (Isasi, 2004; Apalategi, 2017). Hor kokatuko lirarteke euskaraz argitaratutako lanak.

Arazoi hori dela tarteko, asko dira euskal hiztunek egiten dituzten edo inguru euskaldun batean egiten diren ikerketak izan arren, beste hizkuntza batzuetan argitaratzen direnak. Baina euskaraz ere argitaratzen da; esate baterako, euskal komunitate zientifiko-intelektualaren datu-basea den Inguman euskal produkzio akademikoaren berri ematen da eta, besteak beste, azken 40 urteetan euskarazko testuak argitaratu dituzten 129 aldizkari eta 53 argitaletxe biltzen dira datu-base horretan. Apalategiren hitzetan, «Euskaraz iker badaiteke, euskarazko aldizkariak beharrezkoak dira» (2017, 25. or.). Horrez gain, esku-artean dugun lana egin den garaian (2020ko martxoan), Inguman katalogatuta dauden artikuluen kopurua 16.392koa da eta liburuen kopurua 2.604koa.

Aitzitik, azaldu behar da aldizkari horietan argitalpen guztiak ez direla euskaraz izaten. Argitalpena edozein hizkuntzatan eginda ere, lan horien *abstract* edo laburpenak beste hizkuntza batzuetan ere egon ohi dira. Euskaraz egindako lanei dagokienez, lan horiek euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edota frantsesezko laburpenak izan ohi dituzte. Erdaretan idatzitako lanei dagokienez, kasu batzuetan laburpenen artean euskarazkoa ere egon ohi da eta beste kasu batzuetan, ez. Horrekin lotuta, laburpen zientifikoak edo *abstractak* betetzen duen funtzioa azpimarratu beharra dago. Laburpen zientifikoak edo *abstracta* dokumentu baten edukiaren laburpen objektibo eta zehatza da. Oro har, artikuluaeren hasieran kokatzen dira eta testura hurbiltzea eskaintzen dute, interpretazio kritikorik gabe eta egilearen presentziarik gabe (Prestinoni de Bello-ra & Girotti, 2005). Horren helburua da irakurleei zer ikertu den aurkeztea eta ondorio garrantzitsuei buruzko ikuspegi argia ematea. *Abstracta* ezagutza zientifikoak azkarrago zabaltzeko tresna ere bada. Izan ere, ikerketek baieztatzen dute *abstractak* ondo idatzita ez badaude artikuluek arreta gutxiago jasotzen dutela (Piqué-Noguera, 2012).

2.3. Hizkuntza akademikoa eta euskara

Ikusitakoak ikusita, beharrezkoa da hizkuntza akademiko gisa euskara zein puntutan dagoen hausnartzea. Diskurtso akademikoak berezko ezaugarriak ditu. Arlo jakin batean gertatzen den diskurtsoa da, arlo batean adituak direnen arteko interakzioa, eta diskurtso akademikoaren genero diskurtsibo bakoitzak berezko berezitasunak ditu. Gainera, diziplina batean eta bestean sortutako testuen artean desberdintasunak daude. Zentzu horretan, «unibertsitatea goren mailako kulturgunea da eta, beraz, goi mailako hizkuntz ereduak eskaini behar du, mintzaira zuzen, zehatz eta jasoa, alegia» (Kintana, 1994, 235. or.). Aitzitik, egun, euskara akademikoaren egiturak, kanonak, eta abar oraindik finkatu eta egonkortu gabe daudela esan liteke.

Euskararen idazketari dimentsio linguistikotik begira hainbat lan argitaratu dira. Esate baterako, letra larriak erabiltzeko irizpideak azaltzen dituzten lanak (Mujika, 2008), ortotipografia lantzen duten gidak (Zubimendi, 2004) edota bestelako estilo-liburuak, esaterako, EIMArenek (Eusko Jaurlaritza, d.g.a) edo komunikabideetatik proposatzen direnak (adibidez, *Berria* egunkariaren sareko estilo-liburua).

Ezagutza-eremu zehatzetan erabiltzeko terminologia proposatzen duten lanak ere badaude. Esate baterako, *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak* izeneko gida (Etxebarria, 2011) edota Euskara Aholku Batzordearen (EAB) baitako Terminologia Batzordearen jarduketa-planaren barruan egindakoak (Eusko Jaurlaritza, d.g.b).

Unibertsitateko ikasleak euskararen idazketa akademikoan trebatzeko proposamenak ere badaude. Horien artean, zenbait aipatzearen, Bengoetxeak eta Txapartegik (2004) filosofia-ikasleei zuzenduta argitaratutako *Filosofiako Gida. Filosofian aritzeko oinarriak: gida bibliografiko eta metodologikoa* lanaren kapitulu batean idazlan akademikoaren ezaugarriak eta faseak lantzeko orientabideak ematen dira. Ezeizak (2010) koordinatutako *PREST. Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen eskuliburua* izeneko lanean komunikazio-gaitasuna irakastearren beharra azpimarratzen da, Peñak (2011) adierazten zuen moduan, ikasleek ez baitute gaitasun hori erabat garatu

unibertsitatera heltzen direnean. Martínezek eta Legarretak (2017) idatzitako *Gizarte eta Komunikazio Zientzietan bibliografia eta aipua txertatzeko moduari buruzko gidaliburua* liburuxkan lan akademikoetan bibliografia zuzen idazteko jarraibideak ematen dira. Horrez gain, García eta Luxanek (2018) idatzitako *Gradu Amaiaerako Lanak Soziologian* liburuan ikerketa sozial aplikatuen eremuan gradu amaierako lanak egiteko, aurkezteko eta gidatzeko orientabideak biltzen dira. Eta Bereziartuak eta Boillosek (2018) egindako *Oinarritzko idazketa akademikoa garatzeko eskuliburua* lanean unibertsitatera sartu berri diren ikasleak idazketa akademikoan trebatzen hasteko jarduerak proposatzen dira.

Horrekin guztiarekin lotuta, Ugarteburuk (2005) euskara teknikoaren irakastearen garrantziaz hitz egiten du. Euskara teknikoaren xede berezietako hizkuntza dela adierazten du eta horren ezaugarri nabarmen batzuk aipatzen ditu: lexikoa, ortotipografia, aldaketa morfosintaktikoak eta testuen erregistroa, besteak beste.

Labur esanda, atal teoriko honetan euskara eremu akademikoan egiten ari den bideari buruz aritu gara. Hasteko, euskara EAEko eta NFKko unibertsitateetan bere toki egiten nola ari den ikusi dugu. Euskarazko ekoizpen akademikoari dagokionez, batetik, ekoizpen hori gertatzen ari dela ikusi dugu; eta, bestetik, arlo horretan aurkitzen diren zenbait oztopo ezagutu ditugu. Azkenik, euskara eremu akademikoan erabiltzeko hizkuntza aproposa izan dadin proposatzen diren hainbat materialen berri izan dugu. Ikusi dugunez, euskara bere bidea egiten ari da eremu akademikoan baina oraindik bide luzea dauka egiteko. Prozesu horretan bere alea jarri nahi du azterlan honek.

3. METODOLOGIA

Atal honetan, ikerketa hau nola egin den deskribatuko da. Horretarako, lanaren helburu nagusia eta bertatik sortu diren ikerketa-galderak aurkeztuko dira. Ondoren, erabilitako corpusaren xehetasunak aipatuko dira. Azkenik, bildutako datuak aztertzeo jarraitu den prozeduraren deskribapena egingo da.

3.1. Helburua eta ikerketa-galderak

Lan honen helburua izango da euskaraz EAEan eta NFKn argitaratzen diren aldizkari zientifikoetan duen presentzia aztertzeo hurbilpen bat egitea. Lan honetarako berariaz osatutako corpus bat oinarri hartuta, azken hamarraldian euskaraz idatzi diren lanak eta euskaraz idatzi diren *abstractak* aztertu dira, laburpen horiek agertzen diren lanak jatorriz euskaraz idatzi izan ala ez. Helburu hori lortzeko honako ikerketa-galdera hauek planteatu dira:

- a) Zein izan da euskaraz idatzitako lanen eta *abstracten* presentzia giza eta gizarte zientzietako aldizkari zientifikoetan 2010-2019. urteen artean?
- b) Zein izan da presentzia horren bilakaera 2010-2019. urteetan zehar?

- c) Desberdintasunak al daude giza zientzietako eta gizarte zientzietako ezagutza-eremuen artean?
- d) *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariako datuak nolakoak dira corpuseko datu orokorrekin alderatuta?

3.2. Corpora

Ikerketa honetan Ingumako datu-basea erabili da erreferentzia gisa. Bertan, euskal komunitate zientifikoaren ekoizpena biltzen da, Euskal Herrian argitaratu ala kanpoan argitaratu, argitalpenak euskaraz izan ala erdaretan izan. Euskaraz egindakoa bakarrik ez izan arren, euskarazko ekoizpen zientifikoa biltzen da Inguma datu basean. Hori abiapuntutzat hartuta, ondoren zehazten diren iragazkiak aplikatu dira eta ikerketa honetan erabilitako corpora sortu da. Bertan egoteko bete beharreko baldintzak honako hauek izan dira:

- 1) EAEn edota NFKn argitaratzen diren aldizkariak izatea. Kanpoan geratu dira euskarazko testu zientifikoak argitaratzen dituzten aldizkariak baina beste lurralde batzuetakoak direnak.
- 2) Giza edo gizarte zientzietakoak izatea. Horretarako, UNIBASQek ezarritako sailkapena jarraitu da. UNIBASQek ezagutza-eremu hauek bereizten ditu: (1) Zientzia Esperimentalak, (2) Medikuntza eta Osasun Zientziak, (3) Zientzia Juridikoak eta Ekonomia Zientziak, (4) Gizarte Zientziak, (5) Irakaskuntza Teknikoak, eta (6) Giza Zientziak. Ezagutza-eremu horietatik gizarte zientzietako eta giza zientzietako aldizkariak ikertu dira lan honetan. Bi ezagutza-eremu horietako bakoitzean biltzen diren diziplinak 1. eranskinean daude ikusgai. Ezagutza-eremu horiek hautatzeko zenbait arrazoi egon dira: batetik, ikerketa hau egiteko ezinezkoa zen ezagutza-eremu guztiak aztertzea eta unibertso hori mugatzeko beharra ikusi da; bestetik, teoriaren atalean ikusi dugun moduan, euskaraz tesi gehien egiten diren ezagutza-eremuak izanik (ikus 3. irudia), tesi horietatik artikuluko zientifikoak eratorriko direla uste izan da.
- 3) 2010-2019. urteen artean lanak edota *abstractak* euskaraz edukitzea. Hau da, euskarari ateak irekita dauzkatala suposatzen den aldizkariak izatea. Alegia, 2010-2019. urteen artean euskarak inolako presentziarik izan ez duen aldizkariak ez dira kontuan hartu corpuserako.
- 4) Azterlan honetarako zehaztutako kalitate irizpideak betetzea (aldizkariak momentu honetan irizpide horiek betetzea edo, aldizkaria lehenago itxi zen kasuetan, itxi zen urtean irizpide horiek betetzea). Aldizkariaren Analisisirako Informazio Matrizea den MIAREN, ikusgarritasuna neurtzeko zenbait irizpidetan oinarritzea, hala nola, espezializatutako datu-baseetan egotea, diziplinarteko datu-baseetan egotea, WoS/Scopusen egotea, zenbait ebaluazio-sistema gainditzea eta e-Sumarioetan egotea. Horien artean, ikerketa honetan bi irizpideri erreparatu zaie: WoS/Scopusen egotea edota ebaluazio-sistemaren bat gainditu izana. WoS/

Scopusen egoteko datu-base hauetakoren batean egotea eskatzen da: Arts and Humanities Citation Index, Emerging Sources Citation Index (ESCI), Science Citation Index Expanded, Scopus edota Social Sciences Citation Index. Kontuan hartzen diren ebaluazio-sistemak, berriz, hauek dira:

- CARHUS Plus+ 2018: Gizarte zientzien eta humanitateen arloetako aldizkari zientifikoak sailkatzeko sistema.
- DOAJ: Directory of Open Access Journals.
- ERIH Plus: European Reference Index for the Humanities and Social Sciences.
- LATINDEX. 1.0 katalogoa (2002 - 2017).
- LATINDEX. 2.0 katalogoa (2018 -).
- FECYT kalitate-zigilua.

Corpuseko aldizkariak beteta dauzkaten kalitate-irizpideak eta informazio osagarria 2. eranskineko taulan daude ikusgai.

- 5) Ordainpekoa ez izatea eta *abstractak* sarean eskuragarri egotea. Lanen zabalkundea aintzat hartuta, baldintza izan da lanetara doako online sarbidea izatea.

Beraz, atal honen hasieran aipatu bezala, azterlan hau egiteko oinarritzat hartu den corpusa 31 aldizkarik osatu dute.

Kalitate-irizpideak kontuan hartuz gero, egiazta daiteke lau aldizkari soilik sartzen direla WoS edo Scopus datu-baseetan: *Ausart*, *Lurralde*, *Euskera* eta *Munibe*¹²; lehenengo hirurak giza zientzien eremukoak, eta azkena bai giza eta bai gizarte zientzietako lanak bildu ohi dituenak.

Beste emaitza bat da corpus horretako aldizkarietako batek ere ez duela FECYT (Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología) zigilua lortu. Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak arlo bakoitzeko aldizkari onenei ematen dien kalitate-zigilua da, eta bere oinarrien artean ez da zehazten euskaraz argitaratzen duten aldizkariak ez dutela zigilua lortzerik (FECYT, 2020). Aitzitik, ia aldizkari guztiak Latindex datu-basearen 1.0 bertsioan daude, eta hiru baino ez dira 2018tik aurrera martxan jarri den 2.0 bertsioan lortu dutenak (*Ausart* eta *Munibe*, WoS/Scopusen ere badaudenak, eta *Zer* aldizkaria). Azken aldizkari horretan euskaraz osorik idatzi diren artikuluen presentzia oso txikia da (% 2,9). Azkenik, aldizkarien % 41,9 (13/31) CARHUS+ sailkapen-sistemaren parte dira,

12 Lan honetan zehar aldizkariak izendatzeko erabiliko diren laburtutako izenak 2. eranskineko taulan agertzen dira, aldizkariaren izen osoaren ondoren, parentesi artean.

eta sailkapen-sistema horren baliokide den Europako ERIH+ indizearen baitan dago aldizkarien % 22,5 (7/31). DOAJ direktorioari dagokionez, 31 aldizkarietatik 6 soilik (% 19,3) aurki daitezke bertan. Datu horien argitara, kalitate-irizpideak betetzeari dagokionez, corpus hau osatzeko kontuan hartu diren kalitate-irizpideen artean Latindex-en 1.0 bertsioan 31 aldizkarietako 28 daude (% 90,3), baina beste inon ere ez da betetzen dituztenen kopurua erdira iristen.

Corpusean gelditu diren aldizkarien atzetik dauden erakundeek dagokienez, presentzia handiagoa duten hiru entitate daudela ikusi da. Lehenengoa Eusko Ikaskuntza da, eta 9 aldizkari biltzen ditu; bigarrena EHU (7) eta, azkenik, Vianako Printzea Erakundea (4). Eusko Ikaskuntza, bere web-orriko hitzetan, «Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian ofizialki hedatuta dagoen diziplinar-teko zientzia-erakunde bakarra da. Zientziarekin eta kulturarekin, berrikuntzarekin eta aurrerapen kolektiboarekin konpromiso aktiboa duten pertsonak osatzen dute erakundearen masa sozial zabala» (Eusko Ikaskuntza, 2020). Unibertsitateen artean, UPV/EHU unibertsitatea da corpus honetan pisurik handiena duena. Vianako Printzea Erakundea Nafarroako erakunde kulturala da eta bere helburua artea, kultura, folklore, arkeologia eta ondarea babestea da. Corpus honen aldizkarien gainerako erakundeak ikerketa-gaiarekin lotura zuzena duten erakundeak dira batez ere.

3.3. Datuak aztertzeako prozedura

Ikerketa honen lehenengo pausoa aldizkarien datu-basea osatzea izan da. Ingumaren zerrenda osoa oinarritzat hartuta, aldizkari guztiak banan-banan aztertu dira eta aurretik aipatutako baldintzak betetzen zituztenak aukeratu dira. Ondoren, aldizkari bakoitzean 2010-2019. urteen artean argitaratutako lanak zenbatu dira: (1) guztira argitaratutako lanen kopurua, (2) euskaraz argitaratutako lanen kopurua, (3) euskaraz idatzitako *abstractak* (lanaren jatorrizko hizkuntza zeinahi dela ere) eta (4) euskaraz argitaratutako artikuluen euskarazko *abstractak*. Azkenik, bildutako datuak aztertu dira, analisi kuantitatiboak eginez. Lehenik eta behin oinarritzako analisi deskribatzaileak egin dira: maiztasunak, ehunekoak eta batezbestekoak. Ondoren, datu horiek elkarren artean alderatu dira. Prozedura hori bi ikertzailek egin dute. Prozesua amaitutakoan, bat-etortzeak egiaztatu eta bat ez zetozen datuak aztertu dira.

Horrekin guztiarekin batera, bi kontu aipatu nahi genituzke. Batetik, ikerketa honetan erabilitako datu guztietan kontuan izan behar da azterlanaren izaeraren ondorioz errete-marjina egon daitekeela. Bestetik, azterketa hau 2020ko martxoan egin da eta zenbait aldizkaritan oraindik 2019ko ale guztiak argitaratu gabe daude. Hori kontuan hartzea komeni da 2019. urteko datuak interpretatzean.

4. EMAITZAK

Jarraian, ikerketa honen emaitzak aurkeztuko dira. Horretarako, ikerketa-galderak banan-banan erantzungo dira.

- a) Zein izan da euskaraz idatzitako lanen eta *abstracten* presentzia giza eta gizarte zientzietako aldizkari zientifikoetan 2010-2019. urteen artean?

Ikerketa honen corpusean jasotako datuen arabera, guztira 856 lan argitaratu dira euskaraz 2010-2019. urteen artean, hau da, aldizkari horietan argitaratutako lanen % 22,8. Baina, kasu batzutan, lanak jatorriz euskaraz idatzi ez izan arren, euskarazko *abstracta* ere izan ohi dute. Beraz, euskarazko *abstractak* izan ditzakete bai jatorriz euskaraz idatzitako lanek eta bai jatorriz beste hizkuntza batzutan idatzitakoek. Hori kontuan hartuta, argitaratutako lanen % 73,8 dira euskarazko laburpena daukatenak, guztira 2.760 laburpen. Esan bezala, laburpen horiek dauzkaten lan guztiak ez dira jatorriz euskaraz idatzi. Argitaratu diren lan guztien artean, euskaraz idatzitako artikuluetako euskarazko *abstractak* 767 izan dira, argitaratutako lanen arteko % 20,5.

Ikus daitekeenez, euskaraz idatzitako artikuluetako euskarazko *abstractak* gutxia-go dira euskaraz idatzitako artikuluek baino. Kopuru horietan eragiten duen arrazoia hau da: *Tantak* aldizkarian argitaratzen diren lan guztiak euskaraz idatzitakoak izaten dira, baina 2019. urtera arte ez dira argitaratu izan lan horien guztien euskarazko *abstractak*. Eta, metodologiaren atalean aipatu berri dugun arren, zifra horiek guztiak interpretatzean kontuan izan behar den beste gauza bat hau da: azterlan hau egiten ari garen garaian (2020ko martxoan) oraindik aldizkari guztiak ez dituzte argitaratu 2019. urteko ale guztiak. Hori kontuan hartu behar da lan honetan aurkezten ditugun kopuruetan.

Datu orokorretatik harago, 1. taulan ikus daitezke aldizkari bakoitzean euskarazko *abstracten* kopuru absolutuak eta ehunekoak.

1. taula. Corpuseko aldizkarietan guztira argitaratutako artikuluko kopurua eta euskaraz idatzi diren *abstracten* kopurua, jatorriz artikulua idatzi den hizkuntzaren arabera (n eta %). Iturria: autoreek sortua

Aldizkariak	Artikuluak guztira (n)	Abstractak euskaraz (jatorriz E/G/I/F)		Abstractak euskaraz (jatorriz EUSK)	
		n	%	n	%
<i>Ankulegi</i>	70	9	12,8	9	12,8
<i>ASJU</i>	124	61	49,1	60	48,3
<i>Ausart</i>	251	12	4,7	11	4,3
<i>Bidebarrieta</i>	75	70	93,3	6	8
<i>Boletín RSBAP</i>	140	129	92,1	13	9,2
<i>Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra</i>	69	39	56,5	4	5,7
<i>Euskera</i>	126	126	100	116	92,06
<i>Fontes</i>	117	117	100	86	73,5
<i>Ikastaria</i>	36	33	91,6	19	52,7
<i>Ikastorratza</i>	95	59	62,1	32	33,6
<i>Inguruak</i>	58	11	18,9	11	18,9

Aldizkariak	Artikuluak guztira (n)	Abstractak euskaraz (jatorriz E/G/I/F)		Abstractak euskaraz (jatorriz EUSK)	
		n	%	n	%
<i>Isturitz</i>	5	5	100	0	0
<i>Jentilbaratz</i>	24	24	100	2	8,3
<i>Kobie: antropología</i>	68	68	100	4	5,8
<i>Kobie: paleoantropología</i>	90	90	100	1	1,1
<i>Lurralde</i>	91	73	80,2	16	17,5
<i>Mediatika</i>	46	46	100	15	32,6
<i>Munibe</i>	194	194	100	1	0,5
<i>Musiker</i>	59	59	100	4	6,7
<i>Oihenart</i>	60	60	100	14	23,3
<i>Príncipe de Viana</i>	410	171	41,7	18	4,3
<i>RVES</i>	95	39	41,05	19	20
<i>RIEV</i>	72	72	100	17	23,6
<i>RVAP</i>	450	443	98,4	17	3,7
<i>Sancho el Sabio</i>	91	83	91,2	12	13,1
<i>Tantak</i>	121	32	26,4	32	26,4
<i>Trabajos de arqueología de Navarra</i>	82	38	46,3	0	0
<i>Uztaro</i>	199	199	100	199	100
<i>Vasconia</i>	89	89	100	21	23,5
<i>Zainak</i>	93	93	100	7	1,07
<i>Zer</i>	238	216	90,7	7	2,9
Guztira	3738	2760		767	
Batezbestekoak	120.6	89	77.2	24.8	21,5

Ageri denez, euskarazko *abstractak* –lanaren jatorrizko hizkuntza zeinahi dela erabatez beste % 77,2 izan dira eta euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractak*, % 21,5. Ildo horretan, aldizkari batzuetan euskaraz idatzitako lanek bakarrik dauzkate euskarazko laburpenak: *Ankulegi*, *Inguruak* eta *Uztaro*. Edo euskaraz idatzitako ia lan guztiek: *ASJU*, *Ausart*, *Euskera* eta *Tantak*. Beste aldizkari batzuetan jatorriz euskarazko lan gutxi argitaratu dira, baina argitaratutako ia lan guztiek dauzkate euskarazko laburpenak: *Bidebarrieta*, *Boletín RSBAP*, *Jentilbaratz*, *Kobie: antropología*, *Kobie: paleoantropología*, *Lurralde*, *Mediatika*, *Munibe*, *Musiker*, *Oihenart*, *RIEV*, *RVAP*, *Sancho el Sabio*, *Vasconia*, *Zainak* eta *Zer*. Lan bat bera ere euskaraz argitaratu ez duen aldizkari bakarra *Trabajos de Arqueología de Navarra* aldizkaria da. Eta lan guztiak euskara hutsean argitaratu dituzten bakarrak *Uztaro* eta *Tantak* aldizkariak dira.

Bestalde, lanaren jatorrizko hizkuntza zeinahi dela ere euskarazko laburpena kasuen % 75 baino gehiagotan daukate 31 aldizkaritatik 21etan (% 67,7). Baina jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractak* % 25 baino gutxiago dira 31 aldizkarie-tatik 23tan (% 74,1).

Kalitate-irizpideak kontuan hartuz gero, WoS edo Scopus datu-baseetan dauden aldizkarietarako dagokienez, *Ausart* aldizkarian, lanen % 4 bakarrik dago euskaraz. Zertxobait handiago da *Lurralderen* portzentajea, % 17, baina *abstracten* % 80 euskaraz ere argitaratu dira artikulua jatorriz euskaraz ez egon arren. *Euskeran* aldizkarian, salbuespenak salbuespen, euskaraz presentzia nabarmena du: artikuluen % 92an eta laburpenen % 100ean. *Munibek*, bi datu-baseetan dagoen aldizkari bakarrak, euskaraz *abstractak* argitaratzen ditu gehienetan, baina lanak inoiz ez, 2018an kaleratutako artikulua bakarrik izan ezik.

Kalitate irizpideen arabera multzokatutako aldizkarietan gertatzen denari dagokionez, corpusaren deskribapenean alde aurretik aipatu den bezala, asko dira Latindex 1.0-ren aitortpena lortu zuten aldizkariak. Ez da berdina gertatzen 2018. urtearen ondorengo 2.0 bertsioarekin. Datu-base hori osatzen duten hiru aldizkariak (*Ausart*, *Musiker* eta *Zer*) euskaraz idatzita dauden lanen % 5 baino gutxiago dituzte (% 4,3, % 0,5 eta % 2,9, hurrenez hurren). Eta azken bietan bakarrik hartzen dituzte beren *abstractak* euskaraz kasu guztietan edo ia guztietan, lana zein hizkuntzatan dagoen alde batera utzita.

DOAJ osatzen duten aldizkarietarako dagokienez, esan daiteke, *Ausart* (% 4,7) eta *Príncipe de Viana* (% 41,7) aldizkariak izan ezik, gainerako aldizkarietarako euskarazko *abstracten* % 50 baino gehiago dutela, lanaren hizkuntza edozein izanda ere. Izan ere, horietatik 7k beren *abstract* guztien % 90 baino gehiago argitaratzen dituzte euskaraz (*Fontes*, *Mediatika*, *Munibe*, *RIEV*, *RVAP*, *Sancho el Sabio* eta *Zer*). Aitzitik, ez dago jokabide erregularrik euskarazko *abstracta* duten euskarazko lan idatzietarako dagokienez, non ehunekoak % 0,5 (*Munibe*) eta % 73,5 (*Fontes*) artekoak baitira. ERIH+ edo CARHUS+ osatzen duten aldizkarien artean ere ez dago jokabide homogeneorik. Ez dago bat-etortzerik ez beste hizkuntzetako artikuluen euskarazko *abstracten* ehunekoaren artean, ezta hizkuntza horretan bertan dauden artikuluen euskarazko *abstracten* ehunekoaren artean ere.

Bestalde, badirudi «erakunde» aldagaiak eragina duela lortutako emaitzetan. Eusko Ikaskuntzaren eskutik sortzen diren aldizkarietarako kasuan, ikusten da ia laburpen guztiak euskaraz daudela lana beste hizkuntza batean egon arren. Joera homogeneo hori ez da ikusten euskarazko lanen kopuruan % 0tik (*Isturitz*) % 52,7ra (*Ikastaria*) baitoa. UPV/EHUREN babesa duten aldizkarietarako ere agertoki irregularra erakusten dute. Horren erakusgarri da, adibidez, *Bidebarrieta* aldizkarian *abstracten* % 93,3 euskaraz egotea artikulua beste hizkuntza batean dagoenean eta *Ausarten*, berriz, % 4,7. Euskarazko artikuluen euskarazko *abstracte* dagokienez, jokaera desberdin hori ere ikusten da: % 2,9 *Zer* aldizkarian, eta % 48,3 *ASJU* aldizkarian.

b) Zein izan da presentzia horren bilakaera 2010-2019. urteetan zehar?


Aurreko ikerketa-galderan euskaraz idatzitako lanen eta *abstracten* presentziari buruzko datu orokorrak ikusi ditugu. Oraingo honetan presentzia horrek 2010-2019. urteen artean izan duen bilakaerari begiratuko diogu. Lehenik eta behin, 2. taulan ikus daitezke 2010-2019. urteetako bakoitzean argitaratu diren euskarazko *abstracten* kopuruak (alde batetik, lanaren jatorrizko hizkuntza zeinahi dela ere euskaraz argitaratu diren *abstracten* kopuruak; beste aldetik, artikulua jatorriz euskaraz idatzi den kasuetako euskarazko *abstracten* kopuruak):

2. taula. 2010-2019. urteen artean argitaratu diren euskarazko *abstracten* kopuruak urtez urte (n). Iturria: autoreek sortua

Urtea	Artikuluak guztira	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz E/G/I/F)	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz EUSK)
2010	388	324	85
2011	428	295	66
2012	368	274	73
2013	389	294	79
2014	409	312	64
2015	358	186	62
2016	361	279	79
2017	360	297	77
2018	410	308	112
2019	267	191	70

Taulan ikus daitekeenez, artikulua edozein hizkuntzatan idatzita egon arren argitaratu diren euskarazko *abstractak* 274tik gora izan dira urte guztietan, bi urtetan izan ezik: 2015. urtean eta 2019. urtean. Aurrez ere esan bezala, 2019. urteko beherakada oraindik urte horretako datuak osatu gabe egotearen ondorio izan liteke, neurri batean behintzat. Esku-artean dugun lana idatzi den garaian (2020ko martxoan) corpuseko hainbat aldizkarik oraindik ez dituzte 2019ko aleak argitaratu eta hori izan liteke bilakaeran ikusten den desitxuraren arrazoi.

Kopuru absolutuetatik harago begiratu eta kopuruak elkarrekin alderatu ahal izateko datuen ehunekoak kalkulatu dira. Emaitzak 1. grafikoan ikus daitezke:



1. grafikoa. Euskarazko *abstracten* presentziaren bilakaera 2010-2019. urteen artean (%). Iturria: autoreek sortua.

Irudiak erakusten duenez, guztira argitaratu diren artikuluen artetik % 68,9-83,5 artean izan dira euskaraz argitaratu diren *abstractak* urte guztietan, 2015. urtean izan ezik, hor kopuruak behera egiten du % 51,9ra. Jatorriz euskaraz idatzi diren artikuluen euskarazko *abstracten* ehunekoak apalagoak dira, kasu bakar batean ere ez dira iristen herenera. Grafikoan ikus dezakegun bilakaeran ez da joera argirik ikusten, baina 2014. urtetik aurrera jatorriz euskaraz idatzitako artikuluen euskarazko *abstracten* kopurua gorantz joan daitekeela begitantzen zaigu eta aztertu egin beharko litzateke datozen urteetan joera hori baieztatzen denetz.

Urtez urteko datu orokorrak emateaz gain, aldizkari guztien 2010-2019. urteen arteko bilakaerak banaka-banaka aztertu dira. Azterlan horretatik nabarmentzekoak iruditatu zaizkigun ideiak aurkeztuko ditugu jarraian.

Hasteko, aldizkari gehienek (31 aldizkaritatik 22k) jarraitasunez argitaratu dituzte beren aleak 2010-2019. urteen artean, baina badaude jarraitasun hori eten izan dutenak. Kasu batzuetan urte zehatz batean eten dute jarduna (*ASJU*, *Bidebarrieta*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, *Ikastaria*, *Ikastorratza*, *Kobie: antropologia* eta *Kobie: paleoantropologia*); beste kasu batzuetan modu irregularragoan argitaratu izan dute, patroi zehatzik jarraitu gabe (*Mediatika*, *Vasconia* eta *Zainak*).

Horrez gain, zenbait aldizkari desagertu egin dira aztertu dugun urte-tartearen baitan, eta beste batzuk ezin izan ditugu kontabilizatu aukeratu dugun urte-tartearen hasieratik. Batetik, desagertu diren aldizkariaren artean sei daude 2013. urtean azken aleak argitaratu zituztenak: *Ikastaria*, *Isturitz*, *Jentilbaratz*, *Musiker*, *Oihenart* eta *Zainak*. Aldizkari horiek guztiak Eusko Ikaskuntza zientzia-erakundearen baitakoak dira. Eta beste hiru aldizkarik urte batzuk beranduxeago utzi zioten argitaratzeari: *Bidebarrietak* 2016. urtean argitaratu zuen bere azken alea, eta *Kobie: antropologiak* nahiz *Kobie: paleoantropologiak* 2017. urtean. Bestetik, guk aztertu dugun urte-tarte horren hasieratik ez baina beranduago batu dira beste hiru aldizkari: *Ausart* eta *Sancho el Sabio* 2013. urtean eta *Inguruak* 2015. urtean. *Ausart* aldizkaria ez zen sortu 2013. urtera arte; *Sancho el Sabio* eta *Inguruak* aldizkariaren kasua bestelakoa da: aldizkari horiek lehenagotik ere argitaratzen zuten paperean baina bata 2013. urtera arte eta bestea 2015. urtera arte, hurrenez hurren, ez ziren hasi beren argitalpenak sarean izaten. Gure corpusean egoteko baldintzetako bat lanak sarean eskuragarri egotea izan denez, sarean egon ez diren urteetan argitaratutako lanak ez ditugu kontuan hartu.

Aldizkari batzuetan argitaratzen diren lanen eta euskarazko *abstracten* kopurua oso irregularra da eta ez dute patroirik jarraitzen, esate baterako aldizkari hauetan: *ASJU*, *Príncipe de Viana* edota *RVAP*. Eta, aurrez ere aipatu dugun arren, euskaraz idatzitako *abstractei* dagokienean hutsune handi bat dago *Tantak* aldizkariaren kasuan: argitaratzen diren lan guztiak euskaraz idatzitakoak izan arren, 2019. urtera arte ez ziren lan horien guztien euskarazko *abstractak* argitaratzen (2017. urtera arte bakar bat berarenak ere ez eta 2017. urtean argitaratutako lanen erdienak; 2018. urtean hiru lanek euskarazko laburpenak falta dituzte). Horrek nabarmen eragiten die gure corpuseko aldizkarietan euskaraz idatzitako *abstracten* kopuruei buruzko emaitzei.

Aldizkari bakoitzaren kasu partikularrei begira jarrita, *RVES* aldizkariak 2013. eta 2014. urteetan gainontzeko urteetan baino euskarazko *abstract* gehiago argitaratu zituen: 2013. urtean jatorriz euskaraz idatzi ez ziren lanetako euskarazko *abstract*ak ere erantsi egin zizkieten; 2014. urtean jatorriz euskaraz idatzi ez ziren lanetako euskarazko *abstract*ak ere erantsi egin zizkieten eta, horrez gain, jatorriz euskaraz idatzitako lan gehiago argitaratu zituzten, euskarazko *abstract* eta guzti. Hortik aurrera euskarazko *abstract*en kopuruak, orokorrean, eta baita euskaraz idatzitako lanetako euskarazko *abstract*en kopuruak ere, gora egiten dute aldizkari honetan. Esandakoari buruzko datu zehatzak 3. taulan ikus daitezke:

3. taula. *RVES* aldizkarian argitaratu diren lanetako kopuruak eta argitaratu diren euskaraz idatzitako *abstract*en kopuruak 2010-2019. urteen artean (n eta %). Iturria: autoreek sortua

Urtea	Artikuluak guztira	<i>Abstract</i> ak euskaraz (jatorriz E/G/I/F)		<i>Abstract</i> ak euskaraz (jatorriz EUSK)	
		n	%	n	%
2010	8	0	0	0	0
2011	8	0	0	0	0
2012	8	0	0	0	0
2013	14	10	71,4	0	0
2014	20	19	95	12	60
2015	6	0	0	0	0
2016	7	1	14,2	0	0
2017	6	3	50	1	16,6
2018	11	4	36,3	4	36,3
2019	7	2	28,5	2	28,5

Aldizkari horretan azken urteetan jatorriz euskaraz idatzitako lanetako euskaraz idatzitako *abstract*en kopuruak gora egin du eta beste horrenbeste gertatzen da beste zenbait aldizkarietan: *Ikastorratza* aldizkarian 2017, 2018 eta 2019. urteetan jatorriz euskaraz idatzitako kopurua altuagoa da aurreko urteetako baino; eta *Trabajos de Arqueología de Navarra*, *Príncipe de Viana* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía* aldizkarietan 2016. urtetik aurrera argitaratutako lan guztiei (jatorriz euskaraz idatzita ez dauden arren) euskarazko *abstract*ak erantsen hasi dira. Joera hori guztiz bestelakoa da *Zer* aldizkarian: jatorriz euskaraz idatzitako lan oso gutxi argitaratu izan dira, baina 2019. urtera arte lan guztiek izaten zuten euskarazko *abstract*a (% 100), eta 2019. urtean kopuru hori % 4,3ra jaitsi da; argitaratu diren 23 lanetatik bakarra da euskarazko *abstract*a daukana, jatorriz ere euskaraz idatzi den lan bakarrarena. Pentsa liteke, bai batzuen eta bai besteen kasuan, aldizkari horien batzordeetan hizkuntza-politikari buruzko erabaki zehatz batzuk hartu izanaren isla direla ikusi ditugun joera aldaketa horiek.

Amaitzeko, azterketan beste bi datu ere nabarmentzen dira: urte bakoitzean aldizkari guztietako argitalpenen kopuru orokorreari begiratuta, batetik, 2015. urtean euskaraz idatzitako *abstracten* kopuru orokorrek (artikuluaren jatorrizko hizkuntza zeinahi dela ere) nabarmen egiten dute behera; eta, bestetik, 2018. urtean jatorriz euskaraz idatzitako artikuluen euskarazko *abstracten* kopurua handiagoa da aurreko urteetako baino. Datu horiek 4. taulan ikus daitezke:

4. taula. Corpuseko aldizkarietan argitaratu diren lanen kopuruak eta argitaratu diren euskaraz idatzitako *abstracten* kopuruak 2010-2019. urteen artean (n eta %). Iturria: autoreek sortua

Urtea	Artikuluak guztira	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz E/G/I/F)		<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz EUSK)	
		n	%	n	%
2010	388	324	83,5	85	21,9
2011	428	295	68,9	66	15,4
2012	368	274	74,4	73	19,8
2013	389	294	75,5	79	20,3
2014	409	312	76,2	64	15,6
2015	358	186	51,9	62	17,3
2016	361	279	77,2	79	21,8
2017	360	297	82,5	77	21,3
2018	410	308	75,1	112	27,3
2019	267	191	71,5	70	26,2

2015. urtean euskaraz idatziako *abstracten* kopuruek behera egitearen atzean egon litekeen arrazoia lotuta egon liteke 2014. urtetik aurrera argitaratzeari utzi zioten 6 aldizkariaren ekozpenari. Eta 2018. urtean euskaraz idatzitako artikuluen euskarazko *abstractek* gora egitea joera bat ote den ondorengo urteetan gertatzen denaren arabera interpretatu beharko da.

- c) Desberdintasunak al daude giza zientzietako eta gizarte zientzietako ezagutza-eremuen artean?

Metodologiaren atalean azaldu dugunez, azterlan hau egiteko baliatu dugun corpusa osatzeko giza zientziak eta gizarte zientziak ezagutza-eremuak aldizkariak hautatu ditugu. Aldizkari batzuk bi ezagutza-eremu horietako batekoak dira, beste batzuek bi eremuetako gai buruzko artikulua biltzen dituzte. Jarraian daukagun 5. taulan ezagutza-eremu bakoitzean gure corpuseko zenbat aldizkari dauden ikus dezakegu:

5. taula. Corpuseko aldizkari kopurua aztertutako ezagutza-eremu bakoitzean (n). Iturria: autoreek sortua


Giza zientziak	Filologia	4
	Artea	2
	Geografia	1
	Arkeologia	1
	Historia	3
Gizarte zientziak	Hezkuntza	3
	Antropologia	6
	Soziologia	2
	Politika eta Administrazio Zientzia	1
	Komunikazioa	1
Giza eta gizarte zientziak		7
Guztira		31

2010-2019. urteen artean aztertutako ezagutza-eremu bakoitzean argitaratu diren lanen kopuruak eta euskarazko *abstracten* kopuruak (izan jatorriz euskaraz idatzitako lanenak edo izan jatorriz edozein hizkuntzatan idatzitako lanenak) ikusgai daude 6. taulan:

6. taula. Euskarazko *abstracten* presentzia ezagutza-eremu bakoitzean (n). Iturria: autoreek sortua

Ezagutza-eremuak	Artikuluak guztira	Abstractak euskaraz (jatorriz E/G/I/F)	Abstractak euskaraz (jatorriz EUSK)
Giza zientziak	1414	811	346
Gizarte zientziak	1443	1144	167
Giza/gizarte zientziak	884	804	251

Datuen argitara, gizarte zientzien eremuan argitaratu dira bai orokorrean artikulatu gehien eta baita euskaraz idatzitako *abstract* gehien ere. Baina kopuru hori irauli egiten da jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractei* dagokienez. Kasu horretan gizarte zientzien eremuan argitaratu dira gutxien eta giza zientzienetan gehien. Hala ere, kopuru osoetatik ehunikotara pasatuta, datuetan bestelako proportzioak agertzen dira. Hori erakusten du 2. grafikoak:



2. grafikoa. Euskarazko *abstracten* presentzia ezagutza-eremuka (%). Iturria: autoreek sortua.

Irudian ikus daitekeenez, giza eta gizarte zientziak, bi ezagutza-eremuetako gaiak jorratzen dituzten aldizkarietan daude, proportzioan, bai euskaraz argitaratutako *abstract* gehien (jatorrizko hizkuntza edozein izanda ere) eta bai jatorriz euskaraz idatzi diren lanen euskarazko *abstract* gehien. Jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstract* gutxien, berriz, gizarte zientziei buruz lanak argitaratzen dituzten aldizkarietan argitaratu dira.


Aztertutako ezagutza-eremuetako kopuru orokorrak ezagutu ditugu, baina ezagutza-eremu horietako bakoitzaren baitan dauden diziplinei buruzko datuak erakutsiko ditugu jarraian. Giza zientzien baitako diziplinetan 2010-2019. urteen artean guztira argitaratu diren lanak zenbat izan diren eta euskarazko *abstractek* izan duten presentzia ikus daiteke 7. taulan:

7. taula. Euskarazko *abstracten* presentzia giza zientzietako diziplinetan (n). Iturria: autoreek sortua

Giza zientziak	Artikuluak guztira	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz E/G/I/F)	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz EUSK)
Filologia	427	364	276
Artea	310	71	15
Geografia	91	73	16
Arkeologia	82	38	0
Historia	504	265	39

Taula honetan agertzen diren kopuruak interpretatzeko, kontuan hartu behar da diziplina horietako batzuetan gure corpuseko zenbait aldizkari kontabilizatu direla, eta beste batzuetan aldizkari bakarra gelditu dela diziplinaren barruan. Datu horiei zentzu

gehiago ematen lagun dezake kopuru horiek guztiak ehunetara bihurtzeak. Hori da 3. grafikoak erakusten duena:



3. grafikoa. Euskarazko *abstracten* presentzia giza zientzietako diziplinetan (%). Iturria: autoreek sortua.


Grafiko honetan aurreko taulan erakutsi ditugun kopuruak eskala berera ekarrita ikus ditzakegu, diziplinak elkarren artean alderatzeko moduan. Gainontzekoengandik nabarmentzen dena filologia diziplina da, proportzioan euskaraz idatzitako *abstract* gehien bertan argitaratzen delako baina, batik bat, jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstract* gehien bertan argitaratu delako, gainontzekoekin alderatuta modu oso nabarmenean. Gainontzeko diziplinetan jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractak* gehienez ere % 17,5era iristen dira; filologiaren kasuan kopuru hori % 64,6koa da. Baina jatorriz lanak zeinahi hizkuntzatan idatzita egonda ere lan horien euskarazko *abstractak* kasuen 3/4 baino gehiagotan argitaratu dira geografian (% 80,2); eta kasuen erdia inguruatan arkeologian (% 46,3) eta historian (% 52,5).

Beste ezagutza-eremu batera salto eginda, gizarte zientzien baitako diziplinetan 2010-2019. urteen artean euskarazko *abstractek* izan duten presentzia ikus daiteke 8. taulan:

8. taula. Euskarazko *abstracten* presentzia gizarte zientzietako diziplinetan (n). Iturria: autoreek sortua

Gizarte zientziak	Artikuluak guztira	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz E/G/I/F)	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz EUSK)
Hezkuntza	252	124	83
Antropologia	396	305	37
Soziologia	104	57	26
Z. politikoak eta adm.	450	443	17
Komunikazioa	238	216	7

Aurreko taularekin egin dugun bezala, kopuru horiek ehunekotara ekarrita ikus ditzakegu 4. grafikoan:



4. grafikoa. Euskarazko *abstracten* presentzia gizarte zientzietako diziplinetan (%). Iturria: autoreek sortua.

Kasu honetan, estreinako begi-kolpean bi diziplina nabarmentzen dira: zientzia politikoak eta administraziokoak nahiz komunikazioa. Bi kasuetan fenomeno bera gertatzen da: argitaratzen diren ia lan guztiek izan dituzte euskarazko *abstractak*, baina jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractak* oso gutxi dira, jatorriz euskaraz idatzitako lanik argitaratu ez delako. Datuak hain muturrekoak izan ez arren, antzeko joera ikusten da antropologian ere. Gainontzeko bi diziplinetan argitaratutako lanen erdia ingurutan agertzen dira euskarazko *abstractak* (lanaren jatorrizko hizkuntza zeinahi dela ere), baina jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstracten* kopuruak apalagoak dira kasu guztietan. Gogoratu behar dugu, berriro ere, hezkuntza diziplinako datuak ulertzeko kontuan hartu behar dela *Tantak* aldizkarian argitaratzen den guztia euskaraz argitaratzen bada ere, 2019. urtera arte ez zirela hasi lan guztien euskarazko *abstractak* argitaratzen.

Aurreko ikerketa-galderan bezala, ezagutza-eremu bakoitzeko diziplina bakoitzean dauden aldizkari guztiek 2010-2019. urteen artean izandako bilakaerak aztertu dira. Azterketa hori egin ondoren azpimarratzekoak iruditu zaizkigunak azalduko ditugu ondorengo lerroetan.

Emaitzarik argienak ehunekoak aztertuta antzeman ditugu. Esate baterako, artikulua jatorriz zeinahi hizkuntzatan idatzi dela ere argitaratu diren euskarazko *abstractei* begira jarrita, gizarte zientzietako antropologia diziplinan 2014 eta 2015. urteetan kopuru hori baxuagoa da gainontzeko urteetan baino. Gauza berbera gertatzen da hezkuntza diziplinan; kasu honetan 2014. urtean kopurua baxuagoa da, ez bakarrik orokorrean

euskaraz argitaratu diren *abstract*ena, baizik eta baita jatorriz euskaraz idatzi diren lanen euskarazko *abstract*ena ere.

Giza zientziei begira jarrita, historia diziplinan 2016. urtetik aurrera lan guztiek dauzkate euskarazko *abstract*ak, jatorriz euskaraz idatzita ez egon arren. Eta artea diziplinan 2010, 2011 eta 2012. urteetan argitaratutako lan guztiek zeuzkaten *abstract*ak euskaraz, baina azken urte horretatik aurrera kopuruak nabarmen egiten du behera. Alderantzikoa gertatzen da arkeologia diziplinan: ordura arte ez bezala, 2016, 2017 eta 2018. urteetan argitaratutako lanetan (jatorriz euskaraz idatzitakoak ez izan arren) euskarazko *abstract*ak ere txertatzen hasi dira. Esan ditugunak ikus daitezke 9. taulan:

9. taula. Giza zientzietako artea eta arkeologia diziplinetan argitaratu diren euskaraz idatzitako *abstract*en kopuruak 2010-2019. urteen artean (%). Iturria: autoreek sortua

Urtea	Artea		Arkeologia	
	<i>Abstract</i> ak euskaraz (jatorriz E/G/I/F)	<i>Abstract</i> ak euskaraz (jatorriz EUSK)	<i>Abstract</i> ak euskaraz (jatorriz E/G/I/F)	<i>Abstract</i> ak euskaraz (jatorriz EUSK)
	%	%	%	%
2010	100	5,8	0	0
2011	100	4,7	0	0
2012	100	0	0	0
2013	32,6	5,7	33,3	0
2014	2,5	2,5	0	0
2015	7,1	7,1	0	0
2016	8,5	5,7	68,7	0
2017	4	4	100	0
2018	2,5	2,5	100	0
2019	5,8	5,8		

Gizarte zientziei begira jarrita, berriz, komunikazioa diziplinan historian gertatzen zenaren alderantzikoa gertatzen da: 2019. urtera arte lan guztiek zeuzkaten euskarazko *abstract*ak (% 100) baina 2019. urtean kopuruak drastikoki egiten du behera (% 4,3), euskarazko *abstract*ak jatorriz euskaraz idatziko lanetan bakarrik argitaratu baitituzte.

Fokua gizarte zientzietako hezkuntza diziplinan jarrita, ikusi dugu 2017, 2018 eta 2019. urteetan euskarazko lanen euskarazko *abstract*en kopuruak nabarmen egin duela gora. Eta orokorrean gizarte zientzietako datu orokorretan ere ikusten da gorakada hori. Agian hori lotuta egon liteke *Tantak* aldizkaria *abstract* guztiak argitaratzen hasi izanarekin.

d) *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko datuak nolakoak dira datu orokorrekin alderatuta?

Aurreko ikerketa-galderetan, aztertu ditugun corpuseko aldizkariari buruzko datu orokorrak, datu horiek 2010-2019 urte-tartean izan duten bilakaera eta giza nahiz gizarte zientzietan gertatzen denari begiratu diogu. Oraingoan, esku-artean dugun aldizkariari keinu eginez, *Fontes Linguae Vasconum*i erreparatuko diogu.

Aldizkari honetan 2010-2019 urte-tarteko urte bakoitzean guztira euskaraz argitaratu diren laburpen kopurua (artikuluen jatorrizko hizkuntza zeinahi dela ere) eta euskaraz idatzi diren artikuluen euskarazko laburpen kopurua zein izan diren ikus daiteke 10. taulan, corpuseko gainontzeko aldizkariaren batezbestekoekin alderatuta:


10. taula. Euskazko *abstracten* presentzia orokorra: *Fontes* aldizkariko datuak eta gainontzeko aldizkariaren batezbestekoak (n). Iturria: autoreek sortua

Urtea	<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz E/G/I/F) (n)		<i>Abstractak</i> euskaraz (jatorriz EUSK) (n)	
	Gainontzekoen batezbestekoa	<i>Fontes</i>	Gainontzekoen batezbestekoa	<i>Fontes</i>
2010	10,6	5	2,7	4
2011	9,5	8	2	6
2012	8,6	14	2,1	10
2013	9,4	11	2,4	6
2014	9,9	14	1,8	10
2015	5,8	11	1,8	8
2016	8,8	13	2,3	10
2017	9,5	12	2,2	11
2018	9,9	13	3,4	8
2019	5,8	16	1,9	13

Lanak zeinahi hizkuntzatan idatzita egonda ere euskaraz argitaratutako *abstractei* dagokienez, 2010. urtean *Fontes* aldizkariko datuak gainontzeko aldizkariaren batezbestekoaren azpitik daude nabarmen, baina 2011. urtetik aurrera *Fontes* aldizkariaren datuak gainontzekoenak baino altuagoak dira, urte batzuetan besteetan baino alde handiagoz. 2019. urtean ikusten da alde handiena, baina kontuan hartu behar da gainontzeko aldizkarietako batzuek oraindik urte horretako aleak argitaratu gabe dauzkatela.

Jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractei* dagokienez ere gauza bera gertatzen da. *Fontes* aldizkariaren datuak gainontzeko aldizkariaren batezbestekoen gainetik daude, kasu batzutan maila apalean baina beste batzutan modu nabarmenean.


Aurreko kasuetan bezala, kopuru absolutuetatik ehunetara bihurtu ditugu datuak. 5. grafikoan ikus ditzakegu urtez urte artikulua jatorriz edozein hizkuntzatan idatzita egonda euskarazko *abstractek* izan duten presentziaren ehunekoak; alde batetik, *Fontes* aldizkariko datuak eta, beste aldetik, gainontzeko aldizkari guztien batezbestekoak:



5. grafikoa. Euskarazko *abstracten* presentzia orokorra: *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko datuak eta gainontzeko aldizkarien batezbestekoak (%). Iturria: autoreek sortua.

Irudiak erakusten duenez, *Fontes* aldizkariaren kasuan argitaratzen diren lan guztiek izaten dute euskarazko *abstracta*, lanak jatorriz euskaraz idatzita egon ala ez. Horren ondorioz, gainontzeko aldizkarien batezbestekoaren gainetik daude aldizkari honen datuak.

Jatorriz euskaraz idatzitako lanen euskarazko *abstractei* dagokienez, 6. grafikoak ematen du datu horien berri. Kasu honetan ere, alde batetik, *Fontes* aldizkariko datuak ikus daitezke eta, beste aldetik, gainontzeko aldizkarien batezbestekoak:



6. grafikoa. Euskarazko abstracten presentzia jatorriz euskaraz idatzitako lanetan: Fontes aldizkariako datuak eta gainontzeko aldizkariaren batezbestekoak (%). Iturria: autoreek sortua.

Irudian ikus daitekeez, giza zientzietan gertatzen zenarekin lotuta, *Fontes* aldizkarian euskaraz argitaratzen diren lanak gainontzeko aldizkariaren batezbestekoaren gainetik daude urte guztietan. Aldizkarian bertan gorabeherak egon dira baina batez beste argitaratutako lanen 3/4 inguru (% 73,6) izan dira jatorriz euskaraz idatzitakoak eta kopuru hori gainontzeko aldizkarietako kopuruen batezbestekoen (% 18,9) ia laukoitza da.

Emaitzen atalean azterlan hau gidatu duten ikerketa-galderen erantzunak aurkeztu dira. Hasteko, giza eta gizarte zientzietako aldizkari zientifikoetan euskarak izan duen presentzia zenbatekoa izan den ikusi dugu, eta presentzia horrek 2010-2019. urteen artean zer bilakaera izan duen ere bai. Ondoren, ikertutako bi ezagutza-eremuak banaka aztertu eta konparatu ditugu. Amaitzeko, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariari buruzko datuak erakutsi eta gainontzeko aldizkariaren datuekin alderatu ditugu. Emaitza horien argitara ateratako ondorioekin jarraituko dugu ondorengo lerroetan.

5. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Egindako berrikuspenari esker, aldizkariaren corpus jakin batean euskarak duen presentzia egiaztatu ahal izan da. Atentzioa ematen duen lehen emaitzetako bat da aldizkari horiek guztiek euskarazko lanak onartzen bazituzten ere, horien arteko % 22,8 baino ez daudela hizkuntza horretan. Aitzitik, euskarak presentzia handiagoa du lan horien laburpen zientifikoetan; laburpenak ehuneko handiagoan agertzen

baitira euskaraz, nahiz eta lanak beste hizkuntza batzuetan idatzita egon, hala nola gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez. Emaitza horrek bat egiten du atal teorikoan aipatzen zenarekin, non azpimarratu den euskarak oraindik ere presentzia testimoniala duela mundu akademikoan.

Ikertzaileek izen handiko aldizkarietan argitaratzeko duten beharra izan liteke horren arrazoi nagusietako bat. Izan ere, ikusi da lau aldizkari baino ez daudela izen handieneko nazioarteko datu baseetan (WoSen eta Scopusen) kokatuta: *Ausart*, *Euskera*, *Lurralde* eta *Munibe*. Gainera, aldizkari horien arteko *Euskera* aldizkariaren kasuan izan ezik, gainerakoetan euskarazko lanen kopurua oso txikia da. Hala, Apalategi (2017) zioen bezala, beharrezkoa da euskaraz argitaratzeko aldizkariak egotea, eta beharrezkoa da, halaber, euskaraz argitaratzeko ospe handiko aldizkariak egotea.

Edonola ere, ondorioztatu daiteke orokorrean ez dagoela euskararen aldeko apustu handirik inpaktu handieneko aldizkarietan eta euskaraz argitaratzen duten aldizkariak oraindik ez dituztela betetzen inpaktu handiko aldizkari izateko baldintzak. Aurrez ere aipatu bezala, azken urteotan asko ari dira zorrozten ikertzaileok gure ibilbide profesionala elikatu ahal izateko egin beharreko argitalpenen baldintzak; horren adierazle dira, besteak beste, hainbat aldizkari akademikotako editoreek egindako kritikak (Juarez, 2016). Azken urteetan euskarazko lanak (ere) argitaratzen dituzten hainbat aldizkari zientifiko kalitate-irizpide horiek lortzeko prozesuetan sartu direla sumatu dugu. Interesgarria litzateke hor gertatzen ari dena aztertzea eta ikusteke dago bide horrek nora eramango gaituen baina, lortuz gero, bere isla izan dezake euskarak aldizkari horietan izango duen tokian ere.

Horrez gain, euskarazko artikuluen presentzia baldintzatzen duen aldagai bat unibertsitateek beren erakundeetatik hizkuntza horri ematen dioten bultzada izan liteke. Egiatzatu da goi-mailako hezkuntzako erakundeak urratsak ematen ari direla euskara hizkuntza akademiko gisa sendotzeari begira, eta hori agerian jartzen da, halaber, UPV/EHU corpus hori osatzen duten aldizkarietako 7ren atzean dagoela egiaztatzean. Bide horretan eragin nabarmena izan dezakeen agentea da unibertsitatea, bi ikuspuntutatik: eragile gisa eta bitartekari gisa. Eragile gisa, orokorrean, erakundearen baitan diseinatu eta aplikatzen diren hizkuntza-politiketan euskara lehenetsi eta behar duen babesa jasotzen duela ziurtatzea izango litzateke funtzio nagusia. Ekintza zehatzagoi begira jarrita, asko liriateke egin ahalko lituzkeenak; besteak beste, euskarazko material zientifikoak sortzeko laguntzak ematea, ikertzaileon ibilbidean balio gehiago ematea euskaraz argitaratutako lanei, euskaraz argitaratzeko aldizkariak sortu eta mantendu daitezen erraztasunak ematea edota aldizkari horiek goi-mailako kalitate-irizpideak lor ditzaten laguntzea (Isasi, 2004; Apalategi, 2017; besteak beste). Marko teorikoan ikusi bezala, aipatu berri ditugun urrats horietako asko dagoeneko bidertzen dira unibertsitateetatik.

Bitartekari gisa, mundu akademikoaren eta ikasleen arteko zubi izatean datza bere funtzioetako bat. Etorkizunean euskara eremu akademikoan erabil dadin, ezinbestekoa da etorkizuneko irakasle zein ikertzaileek lan zientifikoak euskaraz ekoiztea, eta

horretarako beharrezkoa da gaur egun ikasle diren horiek euskarazko *input* akademikoa jaso dezaten. Horretan lagun dezake, esaterako, euskara akademikoa ikasteko berariazko irakasgaiak egoteak edo graduetako irakasleek ikasleei euskaraz idatzitako lan akademikoak irakurrarazteak. Eremu akademikoan erabiltzen den euskararen *inputa* jasotzea komenigarria da hizkuntzaren aldaera hori barnera dezaten eta ondoren ekoitzi dezaten.

Amaitzeko, 2010-2019. urteen artean azterlan hau egiteko erabili den corpuseko aldizkarietan euskarak izan duen presentzia aztertu ondoren ikusi den emaitzetako bat da 2018. urtean jatorriz euskaraz idatzitako artikuluen euskarazko *abstracten* kopurua handiagoa dela aurreko urteetako baino. Teoriaren atalean esan da euskaraz idazten diren doktoretza-tesien kopurua nabarmen hazi dela azken urteetan. Bi datu horiek elkarreraginean egon litezke. Aztertu egin beharko da momentu honetan joera begitantzzen zaigun hori benetan joera bat al den eta euskara eremu akademikoan tokia irabazten ari den.

Azterlan honen helburu zehatza euskaraz (ere) ekoizten duten aldizkari zientifikoetan euskarak zer presentzia daukan jakitea izan da. Baina ikerketaren jomuga euskara hizkuntza akademiko gisa zer bide egiten ari den jakitea da. Aurrez aipatu bezala, beste zenbait hizkuntzak ez bezala, euskarak oraindik ibilbide laburra egin du esparru akademikoan eta oraindik egonkortu gabe daude kanon asko. Horretarako, lehenik eta behin, aldizkari zientifikoetan daukan presentzia aztertzei hasi gara, baina beste dimentsio batzuk ere aztertzei beharra ikusten dugu. Horien artean dimentsio diskurtsiboa (*abstracta* osatzen duten mugimendu erretorikoak) eta dimentsio linguistikoa (adierazpen linguistikoak). Esku-arteak daukaguna ikerketa zabalagoko baten parte da eta gai honetara lehenengo hurbilpen bat egin nahi izan dugu. Baina ikerketa-lerro honetan lanean dihardugu eta, tolestura gehiago ikertu ahala, emaitzen berri ematen joatea da xedea.

6. ERREFERENTZIAK

- Apalategi, J. (2017). Giza eta gizarte zientziak eta pedagogia euskaraz. *Uztaro*, 100+, 21-26. <https://bit.ly/39g0Dgy> helbidetik eskuratu. DOI: <https://doi.org/10.26876/uztaro.100plus.2017.4>
- Aranzadi, D. (1995). Euskara Deustuko Unibertsitatean. In *XII Congreso de Estudios Vascos: Estudios Vascos en el Sistema Educativo = Eusko Ikaskuntza Hezkuntza Sarean*. Vitoria-Gasteiz.
- Bastero de Eleizalde, J. M. (2004). Euskara Nafarroako Unibertsitatean. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 50, 73-75. <https://bit.ly/3bklyQY> helbidetik eskuratu.
- Bengoetxea, J. B. & Txapartegi, E. (2004). Idazlan akademikoak: aholku metodologikoak. In J. Azurmendi, J. B. Bengoetxea, J. Garmendia & I. Soto (arg.). *Filosofiko gida: Filosofian aritzeko oinarriak: gida bibliografiko eta metodologikoa*, (327-391 or.). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Bereziartua, G. & Boillos, M. M. (2018). *Oinarrizko idazketa akademikoa garatzeko eskuliburua*. Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko

- Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, UPV/EHU. <https://bit.ly/33SEynn> helbidetik eskuratua
- Etxebarria, J. R. (2011). *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Ikaskuntza (2020). Zer da Eusko Ikaskuntza? <https://bit.ly/39cSdGI> helbidetik eskuratua.
- Eusko Jaurlaritza (d. g.a). *EIMA, Euskal ikasmaterialen Estilo-liburua*. <https://bit.ly/3bqH6M2> helbidetik eskuratua.
- Eusko Jaurlaritza (d. g.b). *Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak*. <https://bit.ly/33KfSNr> helbidetik eskuratua.
- Ezeiza, J. (koord.) (2010). *PREST Unibertsitateko komunikaziorako gaitasunen eskuliburua*. Euskara Errektoreordetzaren Sare-Argitalpena, UPV/EHU. <https://bit.ly/2wnsoGJ> helbidetik eskuratua.
- FECYT. (2020). Bases de la VI Convocatoria de evaluación de la calidad editorial y científica de las revistas científicas españolas, FECYT 2018. <https://bit.ly/2UgNdfO> helbidetik eskuratua.
- García, O. & Luxan, M. (2018). *Gradu Amaierako Lanak Soziologian. Ikerketa sozial aplikatuak egiteko, gidatzeko eta aurkezteko argibideak*. Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, UPV/EHU. <https://bit.ly/2xgWxHH> helbidetik eskuratua.
- Irazusta, J. (2010). Euskara sustatzeko politika UPV/EHUn: plan gidaria. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 75, 73-82. <https://bit.ly/2UqQXu4> helbidetik eskuratua.
- Isasi, X. (2004). Unibertsitario euskaldunen egoera zaila. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 50, 131-139. <https://bit.ly/2WOKg86> helbidetik eskuratua.
- Juarez, A. (ed.). (2016). Search vs re-search. In *Declaración de San Francisco sobre la evaluación de la investigación [2012] (253-258. or.)*. Madril: TRLab 02.
- Kintana, X. (1994). Euskara u.p.v./Euskal Herriko Unibertsitatean: erabilera, zuzentasuna eta kontrola. *Euskera*, 39, 233-240. <https://bit.ly/2UfPOab> helbidetik eskuratua.
- Martínez, J. & Legarreta, M. (2017). *Gizarte eta komunikazio zientzietan bibliografia eta aipua txertatzeko moduari muruzko gidaliburua*. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, UPV/EHU. <https://bit.ly/3ajaMKS> helbidetik eskuratua.
- Mujika, A. (2008). *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Nafarroako Parlamentua. (1982). 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- Pagola, R.M. (2004). Hizkuntza Politika Deustuko Unibertsitatean. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 50, 51-56. <https://bit.ly/33IaTwK> helbidetik eskuratua.
- Peña, F. (2011). Leer y escribir. Prácticas necesarias en la universidad. *Educere*, 15(52), 711-719.
- Piqué-Noguera, C. (2012). Writing business research article abstracts: A genre approach. *Ibérica*, 24, 211-232. <https://bit.ly/2QFpUKy> helbidetik eskuratua.
- Prestinoni de Bellora, C.& Girotti, E. (2005). El resumen o abstract. In L. Cubo de Severino (arg.), *Los textos de la ciencia (93-111. or.)*. Córdoba: Comunicarte.

- Ugarteburu, I. (2005). Euskara teknikoaren didaktika. In P. Etxeberria & E. Knorr (prest.), *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia* (431-456 or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zabala, I., Aierbe, A., Aldezabal, I., Arregi, X., Arriola, J. M., Elordui, A., Elozegi, A., Elozegi, K., Ezeiza, J., García, J., García, I., Lersundi, M., San Martín, I. & Ugartebruru, I. (2008). GARATERM: Diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinu eta integrazioa helburu duen proiektua, In P. Salaburu & I. Ugartebruru. (arg.). *Espezialitate bizkerak eta terminologia III: espezialitate-bizkeren didaktika eta komunikazioa* (211-218. or.). Leioa: UPV/EHU.
- Zubimendi, J. R. (2004). *Ortotipografia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

7. ERANSKINAK

1. eranskina: giza zientziak eta gizarte zientziak ezagutza-eremuetan biltzen diren gaiak, UNIBASQen arabera

Gizarte zientziak	Giza zientziak
Eskualdeko Geografia Análisisa	Eskualdeko Geografia Análisisa
Giza Antropologia	Antropologia fisikoa
Bibliotekonomia eta Dokumentazioa	Giza Antropologia
Politika eta Administrazio zientzia	Arkeologia
Ikus-Entzuneko Komunikazioa eta Publizitatea	Bibliotekonomia eta Dokumentazioa
Nazioarteko zuzenbide Publikoa eta Nazioarteko Harremanak	Zientzia eta Teknika Historiografikoak
Gorputz Adierazpenaren Didaktika	Marrazketa
Musika Adierazpenaren Didaktika	Eskultura
Plastika Adierazpenaren Didaktika	Estetika eta Arteen Teoria
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika	Arabiar eta Islamiar Ikasketak
Matematikaren didaktika	Hebrear eta Aramear Ikasketak
Zientzia Esperimentalen Didaktika	Geografia fisikoa
Gizarte zientzien Didaktika	Giza Geografia
Didaktika eta Eskola Antolakuntza	Antzinaroaren Historia
Gorputz eta Kirol hezkuntza	Historia Garaikidea
Giza Geografia	Amerikaren Historia
Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia	Zientziaren Historia
Portaera zientzia Metodologia	Artearen Historia
Hezkuntzarako ikerkuntza eta Diagnosi-metodoak	Zuzenbidearen eta Erakundearen Historia
Kazetaritza	Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia
Soziologia	Historia eta Ekonomia erakundeak
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Erdi Aroko Historia

Gizarte zientziak	Giza zientziak
Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak	Aro Berriaren Historia
Nortasun, Ebaluaketa eta Tratamendu Psikologikoa	Ekialde Urruneko Hizkuntza eta Kultura
Psikobiologia	Musika
Oinarizko Psikologia	Margolaritza
Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia	Historiaurrea
Gizarte Psikologia	Bibliotekonomia eta Dokumentazioa
	Arabiar eta Islamiar Ikasketak
	Aleman Filologia
	Katalan Filologia
	Eslaviar Filologia
	Frantses Filologia
	Filologia Grekoa
	Ingeles Filologia
	Italiar Filologia
	Latin Filologia
	Filologia Erromanikoa
	Euskal Filologia
	Galiziar eta Portugaldar Filologia
	Filosofia
	Zuzenbidearen Filosofia
	Filosofia Morala
	Gaztelania
	Ekialde Urruneko Hizkuntza eta Kultura
	Hizkuntzalaritza Orokorra
	Indoeuropar Hizkuntzalaritza
	Espainiar Literatura
	Logika eta Zientziaren Filosofia
	Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua
	Itzulpen-gintza eta Interpretaritza

2. eranskina: corpuseko aldizkariak, kalitate-irizpideak, ezagutza-eremuak eta erakundeak. Iturria: autoreek sortua

Aldizkariak**	WoS/Scopus*		Gaingidutako ebaluazio sistemak						Ezagutza-eremua (MIAREN arabera)	Erakundea
	ESCI	SCOPUS	CARHUS+	DOAJ	ERIH+	LAT-INDEX V1.0	LAT-INDEX V2.0	FECYT		
<i>Ankulegi. Gizarte Antropologia Aldizkaria (Ankulegi)</i>			x		x	x			Antropologia	Ankulegi Antropologia Elkartea
<i>Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (ASJU)</i>				x		x			Filologia	UPV/EHU
<i>Ausart aldizkaria: arte ikerkuntzarako aldizkaria (Ausart)</i>	x			x			x		Artea	UPV/EHU
<i>Bidebarrieta: Revista de Humanidades y ciencias sociales de Bilbao (Bidebarrieta)</i>			x						Humanitateak eta Gizarte Zientziak (orokorra)	UPV/EHU
<i>Boletín Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (Boletín RSBAP)</i>			x				x		Gizarte zientziak (orokorra)	Euskalerrriaren Adizkideen Elkartea
<i>Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra</i>			x				x		Antropologia	Vianako Printzea Erakundea
<i>Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiria (Euskera)</i>	x						x		Filologia	Euskaltzaindia
<i>Fontes Linguae Vasconum (Fontes)</i>			x		x		x		Filologia	Vianako Printzea Erakundea

Aldizkariak**	WoS/Scopus*		Gainditutako ebaluazio sistemak						Ezagutza-eremua (MIARen arabera)	Erakundea
	ESCI	SCOPUS	CARHUS+	DOAJ	ERIH+	LAT- INDEX V1.0	LAT- INDEX V2.0	FECYT		
<i>Ikastaria: cuadernos de educación (Ikastaria)</i>						x			Hezkuntza	Eusko Ikaskuntza
<i>Ikastorratza, e-Revista de didáctica (Ikastorratza)</i>				x	x				Hezkuntza	UPV/EHU
<i>Inguruak: Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria (Inguruak)</i>						x			Soziologia	Euskal soziologia eta zientzia politikoaren elkartea
<i>Isturitz: Cuadernos de prehistoria-arqueología (Isturitz)</i>						x			Historia	Eusko Ikaskuntza
<i>Jentilbaratz: cuadernos de folklore (Jentilbaratz)</i>						x			Antropologia	Eusko Ikaskuntza
<i>Kobie: serie antropología cultural (Kobie: antropología)</i>						x			Antropologia	Bizkaiko Espeleologia Taldea
<i>Kobie: serie paleoantropología (Kobie: paleoantropología)</i>						x			Antropologia, historia	Bizkaiko Espeleologia Taldea
<i>Lurralde: investigación y espacio (Lurralde)</i>		x	x			x			Geografia	Argitaratzailea: Euskal Geograf Elkargoa

Aldizkariak**	WoS/Scopus*		Gainditutako ebaluazio sistemak						Eragutza-eremua (MIAREN arabera)	Erakunde
	ESCI	SCOPUS	CARHUS+	DOAJ	ERIH+	LAT-INDEX V1.0	LAT-INDEX V2.0	FECYT		
<i>Mediatika: cuadernos de medios de comunicación (Mediatika)</i>			x			x			Soziologia	Eusko Ikaskuntza
<i>Munibe: antropologia- arkeologia (Munibe)</i>	x	x	x	x		x	x		Antropologia eta historia	Aranzadi zientzia elkarte
<i>Musiker: cuadernos de música (Musiker)</i>						x			Arte	Eusko Ikaskuntza
<i>Oihenart: cuadernos de lengua y literatura (Oihenart)</i>						x			Filologia	Eusko Ikaskuntza
<i>Príncipe de Viana</i>			x		x	x			Historia	Vianako Printzea Erakunde
<i>Revista vasca de economía social/ Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria (RVES)</i>					x	x			Humanitateak eta gizarte zientziak (orokorra)	UPV/EHU
<i>Revista internacional de los estudios vascos/ Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria (RIEV)</i>			x			x			Antropologia	Eusko Ikaskuntza

Aldizkariak**	WoS/Scopus*		Gainditutako ebaluazio sistemak						Ezagutza-eremua (MIAREN arabera)	Erakundeak
	ESCI	SCOPUS	CARHUS+	DOAJ	ERIH+	LAT-INDEX V1.0	LAT-INDEX V2.0	FECYT		
<i>Revista Vasca de Administración Pública/ Herri-ardularitzazko euskal aldizkaria (RVAP)</i>			x			x			Zientzia politikoa eta administrazio publikoa	IVAP, Herri Aholkularitza-eremua Euskal Erakundeak
<i>Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca (Sancho el Sabio)</i>			x	x		x			Antropologia, giza eta gizarte zientziak	Sancho el Sabio Fundazioa
<i>Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria (Tantak)</i>						x			Hezkuntza	UPV/EHU
<i>Trabajos de arqueología de Navarra</i>						x			Arkeologia	Vianako Printzea Erakundeak
<i>Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria (Uztaro)</i>					x	x			Giza zientziak eta gizarte zientziak	UEU
<i>Vasconia. Cuadernos de historia-geografía (Vasconia)</i>					x	x			Historia	Eusko Ikaskuntza
<i>Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía (Zainak)</i>						x			Antropologia	Eusko Ikaskuntza
<i>Zer: Komunikazio ikasketen aldizkaria (Zer)</i>			x			x			Komunikazioa	UPV/EHU

*WoS/Scopusen baitan bost datu-base daudela esan dugu, baina gure corpuseko aldizkariak horietako bitan bakarrik zeudenez, taula honetan bi horietan bakarrik eskaini diegu zutabe bana.
** Aldizkariaren izen osoarekin batera, parentesien artean, lan honetan erabiliko den izena adierazten da.

